



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abuztuaren 5a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00248. Galdera, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako proben egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00253. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00254. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko irizpide linguistikoen gidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00255. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren II. Hizkuntza Planeko mezuak edo jakinarazpenak ele bitan bidaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00256. Galdera, etxebizitza partikularretarako laguntza teknologikoko produktueterako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00257. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian etxebizitzaren irisgarritasunerako aurreikusten diren laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00258. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurrian aipatzen den gidaritza ezartzeko laguntzaproduktuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00259. Galdera, KAIMZko langileen historia kliniko informatizatura sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00260. Galdera, ingurumenaren arloko delituen arloko polizia-lankidetzarako protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00261. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00262. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00264. Galdera, Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat eskainitako plazei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00265. Galdera, Kideak zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00266. Galdera, fase goiztiarrean detektatutako bularreko tumoreei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-24/PES-00267. Galdera, bazterketa handiko arriskuan daudenen egoitza-tokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00268. Galdera, dirulaguntza publikoekin egindako fatxada-zaharberritzei eta inguratzaile termikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00269. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuari eta REACT funtsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00271. Galdera, genero-indarkeriaren biktimek etxebizitza babestua lortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00272. Galdera, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00273. Galdera, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00274. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00275. Galdera, Polizia-etxe berriaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00276. Galdera, Nair Cener-i kontratatutako zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00277. Galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00278. Galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00279. Galdera, “Epaiak betearaztea, egonkortzeagatiko kalteordainak eta konpentsazioak” izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidako kreditua handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00281. Galdera, INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00282. Galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00283. Galdera, Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00284. Galdera, biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistikaren ohar metodologikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-24/PES-00285. Galdera, 8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko 8 asteko guraso-baimena Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00248. Galdera, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako proben egutegiari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako proben egutegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24/PES -00248 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak Hezkuntza Departamentuak argitaratutako zenbait deialdi aipatzen ditu, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emandako azaroaren 3ko 244/2022 Ebazpenean eta 246/2022 Ebazpenean jasotako oposizio-lehiaketa prozesuei buruzkoak. Deialdi horien oinarrietan honakoa jasotzen da, hitzez hitz:

a) 244/2022 Ebazpenaren kasuan: "Kidego, espezialitate eta hizkuntza batean baino gehiagotan izena eman eta onartzeak ez dio izangaiari bermatuko eskatu dituen espezialitate eta hizkuntza guztietan parte hartu ahal izatea, ezartzen den hautapen prozesuaren antolaketak ondorio hori baldin badakar, salbu eta espezialitate bera baldin bada baina beste hizkuntza batean".

b) 246/2022 Ebazpenaren kasuan: "Lanpostu eta hizkuntza batean baino gehiagotan izena eman eta onartzeak ez dio izangaiari bermatuko eskatu dituen lanpostu eta hizkuntza guztietan parte hartu ahal izatea, ezartzen den hautapen prozesuaren antolaketak ondorio hori baldin bada, salbu eta lanpostu bera baldin bada baina beste hizkuntza batean".

Beraz, departamentu honek bermatzen du deialdi beraren barruan espezialitate eta hizkuntza batean baino gehiagotan izena eman duten pertsonen aukera izanen dutela gaztelaniazko eta euskarazko espezialitate batera aurkezteko, kidego berekoak izan ala ez. Era berean, hautagaiak deialdi desberdinetan iragarritako plazetara aurkeztu ahal izatea bermatzen da, lehen adierazitako baldintza berberetan. Hala ere, Hezkuntza Departamentuak ez du aurreikusten izangaiak kidego eta hizkuntza bereko edo desberdineko postuetara aurkezteko aukera, oposizio-lehiaketako deialdi berean iragarrita badaude. Aukera hori kontuan hartzeak hain konplexua egiten du hautaketa-prozesuen antolaketa, ezen denbora eta modu egokian amaitzeko aukera hipotekatuko bailuke, ikasturte hasiera praktiketako funtzionario berriak izendatuta eta haiei zentroa esleituta egingo dela bermatzeko.

Egungo gobernuak onartutako deialdi guztietan, titulazio-eskakizun desberdinak dituzten irakasleen kidegoetako plazak sartu direnetan (adibidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen postuak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren postuak), irizpide horiek berak aplikatu dira.

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-24/PES-00253. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruz (11-24/PES-00253). Zehazki, aipatzen du Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planaren 21. orrialdean honako ekintza hau jasotzen

dela: “Hizkuntza-eskubideei eta hizkuntzaren eta kalitatearen arteko harremanari buruzko sentsibilizazio-pilulak igortzea langile guztiei”. Eta, horren harira, galdetzen du:

– Prestatu al dira jada pilula horiek?

– Aurreikusita al dago Euskarabidearen webgunean edo kasuko departamentuaren webgunean argitaratzea hori? Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilaria ematen dion informazioa:

Une honetan ez da oraindik prestatu galderan aipatzen den materiala, eta, beraz, ez da inolako euskarritan argitaratu.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00254. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko irizpide linguistikoaren gidari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko irizpide linguistikoaren gidari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du Lurralde Kohesiorako Depar-

tamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko hizkuntza irizpideen gidari buruz (11-24/PES-00254). Zehazki, aipatzen du Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planaren 21. orrialdean honako ekintza hau jasotzen dela: “Herritarrei ele biko erantzuna emateko ahozko hizkuntza irizpideen gida eman eta hura erabilteko trebatu”. Eta, horren harira, galdetzen du:

– Taxutu al da jada gida hori?

– Baiezkoan, posible al da horren kopia bat eranstea?

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Une honetan ez da oraindik prestatu galderan aipatzen den materiala. Hizkuntza Planaren kro-

nograman ikus daitekeenez, gida hau 2025etik aurrera egitea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00255. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren II. Hizkuntza Planeko mezuak edo jakinarazpenak ele bitan bidaltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak Lurralde Kohesiorako Departamentuaren II. Hizkuntza Planeko mezuak edo jakinarazpenak ele bitan bidaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko hizkuntza irizpideen gidari buruz (11-24/PES-00255). Zehazki, aipatzen du Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Hizkuntza Planaren 23. orrialdean besteak beste jasotzen da: "Herritar edo erakunde jakin bati zuzendutako mezuak (sms, isun, gutun...) edo bestelako jakinarazpenak bi hizkuntzatan bidali" eta "Herritar edo erakunde batengandik jasotako komunikazioak euskaraz direnean, hizkuntza-hautu hori errespetatzeko neurriak hartu". Eta, horren harira, galdetzen du:

Azaldu ahalko litzateke horrek zer esan nahi duen? Herritar batek komunikazioak euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan jaso nahi dituela adierazi ahal izanen du, edo gaztelaniaz egiten denean soilik errespetatuko da nahi hori?

Hona hemen Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Oraindik ez da egin galdetzen den ekintza, eta, beraz, ezin da informazio gehiago eman haren garapenari buruz.

Hizkuntza-aukeraketari dagokionez, egungo araudian jasota dago eta hautaketa hori errazteko neurriak hartzeko plangintza egin nahi da, eta hautaketa hori betetzen dela bermatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00256. Galdera, etxebizitza partikularretarako laguntza teknologikoko produktueterako laguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak etxebizitza partikularretarako laguntza teknologikoko produktueterako laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00106). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1) Zenbat pertsonak eskatu zituzten 2022an etxebizitza partikularretarako laguntza-produktu teknologikoetarako laguntzak? Eta zenbategi 2023an?

2022an, 1.848 pertsonak eskatu zuten laguntza laguntza-produktu teknologikoetarako, eta 2023an, 3.815 pertsonak.

2) Zenbat laguntza-produktu diruz lagundu ziren 2022an? Zenbat 2023an?

2022an, 428 produkturi eman zitzaizkien dirulaguntza, eta 2023an, 3.141 produkturi.

3) Zer aurrekontu bete zen 2022an deialdi honetarako? Eta 2023an?

2022an betetako aurrekontua 543.986,22 eurokoa izan zen, eta 2023an, 4.378.686,92 eurokoa.

4) Zenbat pertsonak jaso zituzten laguntzak 2022an? Zenbategi 2023an?

2022an 428 pertsonak jaso zituzten laguntzak, eta 2023an 2.712k.

5) Zenbat pertsonari ukatu zitzaion laguntza 2022an aurrekontu-izendapenik ez izateagatik? Horietako zenbati eman zitzaizkien 2023an aurrekontu-izendapen berriekin?

2022an inori ez zitzaion laguntza ukatu aurrekontu-izendapenik ez egoteagatik.

6) Zenbat pertsonari ukatu zaio laguntza 2023an aurrekontu-izendapenik ez izateagatik?

Oraingoz aurrekontu-izendapena badago; beraz, 2023an ere inori ez zitzaion laguntza ukatu aurrekontu-izendapenik ez egoteagatik.

7) Zein izan da dirulaguntzaren batez besteko zenbategi 2022an? Eta zein 2023an?

2022an, 1.270,99 euroko dirulaguntzak eman ziren batez beste, eta 2023an, 1.394,04 eurokoak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00257. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian etxebizitzaren irisgarritasunerako aurreikusten diren laguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian etxebizitzaren irisgarritasunerako aurreikusten diren laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko egindako galdera egin du (11-24/PES-00257). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1) Zenbat pertsonak eskatu dituzte 2023ko Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian aurreikusitako etxebizitzaren irisgarritasunerako laguntzak?

2) Zein zen deialdiaren hasierako aurrekontua?

3) Zenbat pertsonak jaso dituzte dirulaguntza horiek?

4) Zenbat pertsonari ukatu zaio laguntza aurrekontu-izendapenik ez izateagatik?

5) Zein izan da dirulaguntzaren batezbesteko zenbatekoa?

Hona Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1) Laguntza horren eskatzaileak 288 izan dira.

2) Deialdiaren aurrekontua 637.548,12 eurokoa izan da.

3) 119 pertsonak jaso dute laguntza.

4) Aurrekontu-izendapenik ez izateagatik laguntza ukatu zaien pertsonak 135 izan dira.

5) Dirulaguntzaren batez besteko zenbatekoa 5.357,54 eurokoa izan da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00258. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurrian aipatzen den gidaritza ezartzeko laguntzaproduktuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurrian aipatzen den gidaritza ezartzeko laguntzaproduktuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko egindako galdera egin du (11-24/PES-00258). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Eskubide Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1) Zenbat laguntza-produktu jaso dira 2023ko Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurriak aipatzen duen gidaritza ezartzeko? Identifikatu kopurua produktu-tipologiaren arabera.

2) Zein da produktu horien jatorria?

3) Non daude biltegitratuta produktu horiek gaur egun?

Hona Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1) Erantsitako taulan, emandako unitateak adierazten dira (bildu direnak), eta horietatik zenbat dauden erabilgarri (berrerabil daitezke).

2) Produktu guztiak partikularren dohaintzetatik datoz.

3) Gaur egun, emandako produktuak Nafarroako Aspaceren pabilioi batean daude biltegitratuta, Noaingo Mocholi industrialdean.

EMANDAKO ELEMENTUAK	EMANDAKO UNITATEAK	UNITATE ERABILGARRIAK
Bainugelako osagarriak	2	2
Gurpil-aulkiaren osagarriak	2	2
Entzumen-egokitzapena audifonoak	1	1
Askotariko taka-takak	50	45
Eseritako taka-taka elektrikoa	4	3
Askotariko arnesak	5	3
Bainuontziko eserlekuak	7	7
Komuneko eserlekuak	2	2
Barandak	2	2
Bastoiak/makuluak	9	7
Haurrentzako zutik jartzekoak	2	2
Besaulki altxagarria	1	1
Ohe artikulatu altxagarria	17	16
Korrika egiteko zinta	1	0
Gurpil-aulkiko kuxinak	10	10
Koltxoiak	16	11
WCko jasogailua	4	4
Scooterra	6	4
Zutik jartzeko garabia	2	2
Altxatzeko garabi elektrikoa	3	1
Eskuz jasotzeko garabia	3	2

Burua garbitzekoa	2	2
Mahai osagarria	2	1
Bizarra mozteko makina	1	1
Ortesia	3	3
Eskailerak gaintzeko beldarra	1	1
Pedalei eragitekoa	9	9
Dutxa- edo komun-aulkia	11	11
Kanpoko eta barruko esku-aulkiak	75	61
Gurpil-aulki elektrikoa	25	11
Eskailerak gaintzeko aulkia	1	0
Haurren aulkitxoak	2	2
Koltxoi gainekoa	7	5
Somier artikulatua	14	9
Dutxako aulkia	3	3
Telefono mugikorra	1	1
Helduen trizikloa	1	1
Guztira	307	248

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00259. Galdera, KAIMZko langileen historia kliniko informatizatura sartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak KAIMZko langileen historia kliniko informatizatura sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak (INDAF) eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (SNS-O) berritu egin dute Kirolaren Ikasketa, Ikerketa eta Medikuntza Zentroan (CEIMD) kirolariei eta pazienteei kirol-medikuntza eta ariketa fisikoan laguntzeko daukaten lankidetzaren hitzarmenari buruz (11-24/PES-00259). Hona

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

– CEIMeko zein langilek izango du programa horietara joaten diren pazienteen Historia Kliniko Informatizaturako sarbidea?

CEIMDeko zuzendaritza medikoa da Nafarroako Unibertsitate Ospitaletik bideratutako pazienteen historia klinikoetara sartzen dena.

– Zer osasun-profesional arduratuko dira paziente horiek baloratzeaz?

Hasiera batean, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzuek baloratzen dituzte pazienteak, eta zerbitzu horiek erabakitzen dute bideratzea, bai bihotz-errehabilitazioan (arrisku txikiko pazienteak), bai onkologian (gehienez 2 puntuko ECOG eskala duten pazienteak) ezarritako irizpideen arabera.

CEIMDen, profesional medikuek eta erizainek egiten dute hasierako balorazioa, eta etengabeko harremana dute ospitale-zerbitzuekin, programan zehar sortzen den edozein gorabeheraren berri emateko.

Urgentziatzko arreta behar izanez gero, CEIMDeko mediku- eta erizaintza-zerbitzuak ematen du.

– Nolakoa izango da pazienteak programa horietara bideratzeko prozedura?

Irizpideak betetzen dituzten eta programetan parte hartzea onartzen duten pazienteen zerrendak CEIMDeko zuzendaritza medikora bidaltzen dira er anonimoan (inoiz ez dira pazienteen izenabizenen datuak bidaltzen, historia-zenbakia eta jaioteguna baizik).

CEIMDeko zuzendaritza medikoak, orduan, pazienteen datuak eskuratzen ditu historia klinikoaren bidez. Zuzendaritza medikoak historia klinikoak aztertu ondoren, pazienteekin harremanetan jartzen da telefono-deien bidez.

– Zer profesionalak diseinatuko dute paziente horien errehabilitazio-programa?

Programak diseinatzeko diziplina anitzeko lana egiten da, eta bertan sartzen dira medikuntzako eta erizaintzako profil profesionalak, fisioterapeutak eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatuak. Langile horiek HUNko medikuak eta erizainak dira, eta CEIMDeko langileak (langile finkoak) eta kontratatutako langileak. Pro-

fesional guztien parte-hartzea astero egiten diren bileren bidez koordinatzen da.

– Zer profesionalak garatuko dute paziente horien errehabilitazio-programa?

Programa bakoitzean eman beharreko prestazioen arabera (kontsultak egitea, elektrokardiogramak, analisiak, laktatoaren hasierako eta amaierako testak egitea, indarraren, orekaren eta erresistentziaren ariketa fisikoko saioak egitea...), profesional batzuek edo besteek esku hartuko dute. Lehen adierazi den bezala, programaren diziplina anitzeko koordinazio-egitura mantentzen da, hau da, bertan parte hartzen dute medikuntzaren arloko profesionalak, hala CEIMDkoek nola Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Kardiologia eta Onkologia Medikoko Zerbitzukoek, erizaintzako profesionalak, fisioterapiako graduatuak eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatuak.

Gainera, etengabeko harremana dago Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko eta CEIMDeko zerbitzuetako zerbitzu mediko eta erizainen artean.

– Nola egiten da programa horietan parte hartuko duten profesionalen kontratazioa edo hautaketa-prozesua eta zer profil profesional eskatzen dira?

Arestian adierazi dugun bezala, gaur egun gauzatzen ari diren programak diziplina anitzeko lanaren bidez egiten dira, eta bertan sartzen dira medikuntzako eta erizaintzako profil profesionalak, fisioterapeutak eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatuak. Langile horiek CEIMDeko langileak (langile finkoak) eta kontratatutako langileak dira.

Kontratatutako langileak hautatzeko prozesuari dagokionez, kontuan hartu da horrelako pazienteekin lanean izandako esperientzia, eta halako lanetan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu behar izan da.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak ohiko kontratazio-prozeduren bidez arautuko dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00260. Galdera, ingurumenaren arloko delituen arloko polizia-lankidetzarako protokoloari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak ingurumenaren arloko delituen arloko polizia-lankidetzarako protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00260). Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeak, 2009ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeko Polizia Koordinaziorako Batzordearen deialdia egitea.

Batzorde horrek, 2010eko urtarrilaren 15eko bileran, zenbait Koordinazio Batzorde sortzea onartu zuen, erabaki zehatzak hartzeko organo tekniko gisa, besteak beste, Ingurumena Zaintzeko Nafarroako Polizia Koordinaziorako Batzordea.

Saio horretan, jarduera-egutegi bat adostu zen lankidetzaren mekanismo gisa, honako hauek barnean hartuta:

- Kide anitzeko organoen aldizkako bilerak, sinatutako protokoloak prestatu eta garatzeko.
- Protokoloak Polizia Koordinaziorako Batzordean aurkeztea.
- Protokoloak, hala badagokio, Nafarroako Segurtasun Batzordeari helaraztea, azter ditzan.

Gainera, ingurumenaren aurkako delituen ikerketan, erabaki zen Polizia Nazionala eta Guardia Zibila izango zirela Foruzaingoak jarraitu beharreko bideak Foru Komunitatearen eremutik kanpo dauden delituak pertsegitzeko.

Kolektoreetan aurkitutako isurketetako informazio-fluxua Polizia Nazionalera bideratzen zen;

hiri-eremuan zeudenak Foru Poliziara; hiriarteko eremutik Guardia Zibilera. Horrez gain, posta elektronikoen erabilera ere markatzen zen, oro har informazioa transmititzeko bitarteko gisa, eta, bereziki, isurketa eta eginbide judizialei buruzko gaietan.

Une horretatik aurrera, eta Ingurumena Zaintzeko Nafarroako Polizia Koordinaziorako Batzordearen saioetan, lankidetzaren irizpide egonkorre eutsi zaie.

Oro har, SEPRONAK edo Foru Poliziaren Ingurumena Babesteko Brigadak ikertzen ditu delituak, ustezko delituan jardun duen lehen indarraren araberrako esleipen-irizpideari jarraikiz. Gainera, Guardia Zibilak eta Foru Poliziak ikertzen ari den beste kidegoari jakinarazteko betebeharra ezarri zen, jarduketan bikoiztasuna saihesteko.

Ingurumenaren aurkako delituen ikerketak banatzeko irizpide horiek konstante mantendu dira, baina 2023tik aurrera hainbat egoeratan aldi bereko ikerketak egin ahal izan dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2023-2027 legegintzaldirako akordio programatikoa bete nahi du, eta ildo horretan lan egiten ari da intentsitate eta dedikazio osoz. Era berean, aztertutako eremuetan ikerketa bere gain hartzeari buruzko informazio-eskaeran aipatutako akordio posibleei dagokienez, eskusibotasun hori zehazten duten akordioak izan beharko lirakeke, eta inplikaturako alderdien borondateak bat etortzea eskatu beharko lukete.

Guardia Zibilaren SEPRONAK Foru Komunitateko ingurumenarekin, hirigintzarekin edo lurralde-antolamenduarekin lotutako ordenamendu juridiko administratiboa ikuskatzeko eta kontrolatzeko berezko zereginetan jarduten duen akordio edo protokoloari dagokionez, adierazi den bezala, 2009ko ekainaren 30eko Segurtasun Batzordearen bilkuran Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeko Polizia Koordinaziorako Batzordea deitzea erabaki zen.

Batzorde horrek, 2010eko urtarrilaren 15ean egindako bileran, zenbait koordinazio-batzorde sortzea onetsi zuen, erabaki zehatzak hartzeko organo tekniko gisa, besteak beste, Nafarroako Ingurumena Zaintzeko Polizia Koordinaziorako Batzordea. Testu horretan, lankidetzaren mekanismo gisa, hainbat ekintza sartu ziren, hala nola, sinatu-

tako protokoloak egiteko eta garatzeko kide anitzeko organoen aldizkako bilerak, polizia-koordinazioarako batzordean protokoloak aurkeztea eta, hala badagokio, protokoloak Nafarroako Segurtasun Batzordeari helaraztea.

Baliabideen mobilizazioari dagokionez, Nafarroan egiten da 112 telefonoaren bidez, Aginte eta Kontrol Zentroarekin (AKZ) koordinatuta, eta ez dakigu legebiltzarkideak zer gertatzen den kidego

autonomikoko Ingurumen Brigadari egindako errekerimenduei buruz egindako informazio-eskaeran.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 21ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-24/PES-00261. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Cascanteko osasun-etxe berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Cascanteko osasun-zentro berri baterako proiektuari eta obren hasieraren atzerapenari buruzko 00205 PES/11-24 galderari emandako erantzunean aipatzen zen epe-doikuntzari buruz (11-24/PES-00261). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Zeintzuk izan ziren aipatzen diren doikuntzak? Nork eta noiz egin zituen? Erabilitako idazki, posta elektronikoko edo bitartekoaren kopia. Nork du doikuntza horiek egin behar izateko ardura, entrega-epean atzerapena eragin baitzuten?

Proiektuak garatzen diren bitartean, ohikoa da idazketa-taldeekin bilerak edo elkarrizketak izatea, proiektuen alderdi batzuk zehazteko. Proiektu honen garapenean, eta beste edozeinetan bezala, Azpiegitura Zerbitzuko eta Tuterako Osasun Barrutiko teknikariek aurkeztutako lanak berrikusi dituzte, eta hainbat gai aztertu eta zehaztu dituzte, zentroaren eta bertako profesionalen beharretara hobeto egokitzen den emaitza lortzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00262. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz (11-24/PES-00262). Hona Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko titular gisa dituen eginkizunei dagokien ohiko jardunean, kontseilaria honek hiru bilera egin ditu Acciona enpresaren ordezkari gisa jardun duen Alonso Egurrola jaunarekin. Bilera horietako bitan, 2023ko irailaren 6an eta azaroaren 13an egindakoetan, Mina Muga proiektuaren garapenaren eta haren obrek ingurumenean izan zitzaizketen eraginaren jarraipena egitea izan zen helburua.

Hirugarren bilera 2023ko azaroaren 6an egin zen Nafarroako Jauregian, Forestaliak eskatuta,

eta bertan honako hauek ere parte hartu zuten: lehen lehendakariorde eta Lehendakariorde kontseilari Félix M^º Tabernak, Forestaliako lehendakari Fernando Samperrek, eta enpresaren ordezkari Carlos Ontañón, Luis Marruedo eta Julio Tejedorrek. Bileraren xedea izan zen talde horrek sustatzen duen goi-tentsioko lineak hedatzeko proiekturako Estatuko administrazio-baimenak aztertzea.

Halaber, eraikuntza jasangarriari buruzko EDIFICA kongresuaren antolatzaileen ekimenez eta haiek gonbidatuta, Aierdi kontseilariak bazkari batean parte hartu zuen 2023ko irailaren 20an Baluarte Jauregian, ekitaldi horri buruz hitz egiteko. Bertan egon ziren, halaber, ekitaldiaren sustatzaile Koldo Monreal, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioko zuzendari nagusi Francisco Javier Martín, lehendakariorde Félix taberna, Passivhaus partzuergoko ordezkari Del Río jauna eta Medina jauna eta ekitaldiaren babesle den Accionako ordezkari Montes de Frutos jauna, Ruiz jauna eta Alonso Egurrola jauna.

Azken galderari dagokionez, aipatutako aldietan ez zen aztertu Erripagainako udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketa AR-2 banaketa-eremuari dagokionean, hirigintza-izapide horrek ez baitu zerikusirik aipatutako bileretan landutako proiektuekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00264. Galdera, Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat eskaintako plazaiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat eskaintako plazaiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA


Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00264). Hona hemen galdera eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

• Zenbat plaza eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat udal-aterpetxeak kontuan hartu gabe?

Arlo honetan egindako diagnostikoan honako datu hauek jasotzen dira. Erantsitako datuak dira; beraz, kontuan hartu behar da udal-aterpetxe arrunten plaza kopurua 76 dela:

"Jarduera nagusiaren arabera, 2022an, ostatu hartzeko baliabideak zentro guztien % 72 dira (25 zentrotik 18). Hala ere, horien pisu erlatiboak behera egin zuen 2020an eta 2022an, jantoki sozialek eta okupazio-tailerrek edo eguneko zentrotok gora egin dutelako –2022an zentro guztien % 28 izatera igaro dira (4 jantoki sozial eta 3 eguneko zentro edo okupazio-tailer)–. Etxerik gabeko pertsonentzako zentrotrei buruzko inkestaren arabera, ostatu-lekuen % 39 aterpetxeak edo gaueko harrera-zentroak dira, % 17 egoitzak eta % 45 apartamentu edo pisuak, % 39 aldi baterako harrerarako eta % 6 egonaldi mugagaberako".

1. irudia. Zentrozen banaketa, zentroaren jarduera nagusiaren arabera (%). 2014-2022.



Iturria: Estadística Instituto Nazionala Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko inkesta

2014 eta 2022 artean, nabarmen hazi da Nafarroako etxerik gabeko pertsonentzako baliabide-sarea (2. taula): bai ostatu-plazak kopurua (509), jatetxe-plazak (297) eta okupazio- eta/edo eguneko plazak (452), bai okupazioa eta estaldura (100 biztanleko plaza-kopurua). 2022an, etxerik gabeko pertsonentzako 25 zentrotok, batez beste, 845 ostatu-plaza, 714 jatetxe-plaza eta 833 eguneko

okupazio- eta/edo hezkuntza-plaza eskaintzen dituzte.

Ikuspegi konparatuan, Estatuko etxerik gabeko pertsonentzako zentrozen eskaintza osotik (1.175), Nafarroak % 2,1 zituen 2022an. Hala ere, egoitza-plazaren estaldura handiena duen Estatuko bigarren autonomia-erkidegoa da.

1. taula. Plaza kopurua, batez besteko okupazioa eta estaldura, baliabide edo zerbitzu motaren arabera. 2014-2022

	2014	2016	2018	2020	2022
Ostatu-lekuak					
- Plazen batez besteko kopurua.	336	354	525	452	845
- Okupatutako plazen batez besteko kopurua	385	200	266	395	801
- Batez besteko okupazioa (%)	79,2	56,4	73,3	87,4	94,8
- Emakumeek betetako plazen ehunekoa	--	--	45,4	37,0	46,4
- Estaldura % (plaza-kopurua 100 biztanleko)	0,052	0,055	0,081	0,068	0,13
Jantoki sozialak					
- Plazen batez besteko kopurua.	417	408	172	386	714
- Zerbitzuen batez besteko kopurua (gosaria, bazkaria, afora)	966	594	375	1033	1871
- Estaldura % (plaza-kopurua 100 biztanleko)	0,065	0,064	0,027	0,058	0,11
Okupazio- eta/edo hezkuntza-zerbitzuak					
- Plazen batez besteko kopurua.	381	308	373	547	833
- Okupatutako plazen batez besteko kopurua	342	171	333	461	789
- Batez besteko okupazioa (%)	89,8	55,5	89,3	84,3	94,7
- Estaldura % (plaza-kopurua 100 biztanleko)	0,059	0,048	0,058	0,083	0,13

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko inkesta/Errolda Jarraituari buruzko Estatistika

Oharra: batez besteko plaza-kopuruari buruzko datuek urteko bi unetan erregistratutako egiten diete erreferentzia –oro har, ekainean eta abenduan–.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00265. Galdera, Kideak zerbitzuari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Kideak zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak Kideak zerbitzuari buruzko galdera egin du (PES-11-23/00168), idatziz erantzun dakion. Hona hemen Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Kideak zerbitzu berria –orain Europako Gizarte Funtzak ere finantzatua– handitzeari buruzko lehenengo galderari dagokionez, esan behar da apirilaren 23an jarri zela martxan, eta haren edukiera 18 plazatan handitu zela. Honela geratu da:

- Lehen 35 plaza zituen ostatuarekin, eta apirilaren 23tik 40 plaza ditu ostatuarekin.

- Ostaturik gabeko plazei dagokienez, lehen 15 ziren eta gaur egun 28 plaza dira ostaturik gabeko plazak.

Bigarren galderari dagokionez, zerbitzuak ez ditu sarbide-irizpideak aldatu. Honako hauek dira:

Zerbitzua 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileei zuzenduta dago, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileak.
- Familiaren laguntzarik ez izatea Nafarroan.
- Kalteberatasun bereziko egoeran egotea.

- Ezarritako zerbitzuetan aktiboki eta aprobe-txamenduz parte hartzeko konpromisoa hartzea.

- Intentsitate baxuko laguntza behar izatea, gizarte- eta hezkuntza-arlokoa, ingurune komunitarioan bizitza autonomorako eta gizarteratzeko gaitasun pertsonalak mantentzeko edo garatzeko.

- Honako baliabide hauetako batetik eratorria izatea: Adingabeak babesteko sistema edo Oinarriko Gizarte Zerbitzuak (azken kasu horretan, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea eskaera aurkeztu baino 6 hilabete lehena-gotik gutxienez).

- Bizitoki-baliabideko plaza beteko den kasuetan, egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-alternatiba bat eskatzea, gizarteratze-ibilbide bat egiteko.

- Eskumena duen administrazio unitateak aurrez txostena egitea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00266. Galdera, fase goiztiarrean detektatutako bularreko tumoreei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak fase goiztiarrean detektatutako bularreko tumoreei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, fase goiztiarrean detektatutako tumoreen ehunekoa jaitسي izanari 2018tik 2022ra (11-24/PES-00266). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera dela-eta, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Detekzio Goiztiarreko Atalak 2018, 2019, 2020, 2021 eta 2022rako prestatutako jarduera-memoriak berrikusi dira. Memoria horiek bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programaren prozesu- eta emaitza-adierazle nagusiei buruzko informazioa ematen du, 2017, 2018, 2019, 2020 eta 2021eko gonbidapenei dagokienez, hurrenez hurren.

Leticia San Martín andreak aipatzen duen moduan 2020, 2021 eta 2022ko memorietan fase goiztiarrean detektatutako tumoreen ehunekoa jaitسي izanaren arrazoia aurkitu dugu. T1mic, T1a eta T1b diagnostikoen tamainako minbiziak soilik hartu dira kontuan, in situ minbiziak kontuan hartu gabe; horiek ere goiz diagnostikatutako minbizien talde horretan sartu beharko lirerateke, eta beti hartu izan dira kontuan. Behin in situ minbiziak kontabilizatuta, diagnostikoen tamaina txikiko minbizien ehunekoa honako hau dugu: % 44,69 2020an, % 38,60 2021ean eta % 50,52 2022an.

Grafiko horietan datuak ikus daitezke zuzendu aurretik eta ondoren.



Eskerrak eman nahi dizkiogu Leticia San Martín andreaki egindako oharregatik, akats garrantzitsu hau zuzentzeko aukera eman baitigute.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00267. Galdera, bazterketa handiko arriskuan daudenen egoitzatoki buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak bazterketa handiko arriskuan daudenen egoitza-toki buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00267). Hona hemen galdera hori:

- Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dabil bazterketa handiko egoitza-plazak handitzeko?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialerako eta Enplegurako kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Gaur egun, departamentu hau "Etxerik gabekoei arreta emateko ibilbide-orria" izeneko dokumentua prestatzen ari da beste batzuen parte-hartzearekin. Dokumentu honetan marko konzeptuala, helburu jakin batzuk eta lanerako ardatz batzuk ezartzen dira, ekintzetarako lehenetsuzko ildoak definituko dituztenak eta Gizarte Inklusiorako etorkizuneko Plan Estrategikoaren oinarri izanen direnak.

Bazterkeria handiko egoitza-plazak handituta etxerik gabeko pertsonen oinarriko premiei erantzuteko neurriak zabaltzea da horietako bat, eta, horrekin lotuta Iruñeko Udalarekin batera lanean ari gara, ildo horretako tresnak abian jartzeko, etorkizuneko Gizarteratzeko Plan Estrategikoa onartu aurretik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialerako eta Enplegurako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00268. Galdera, dirulaguntza publikoekin egindako fatxadazaharberritzei eta inguratzaile termikoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak dirulaguntza publikoekin egindako fatxadazaharberritzei eta inguratzaile termikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00268). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

– 2022. eta 2023. urteetan laguntza publikoekin gauzatutako fatxadaren eta inguratzaile termikoen birgaitze guztietatik, zenbat etxebizitzak

lortu dute A edo B kalifikazio energetikoa birgaitzea amaitu eta laguntzak onartu ondoren?

2022an behin betiko kalifikazioa eman zitzaizen inguratzaile termikoa hobetzeko birgaitze babestuko 76 espedienteri, guztira 1.495 etxebizitzari, eta ordaindu beharreko dirulaguntza 9.695.494,69 eurokoa izan zen.

2023an, inguratzaile termikoa hobetzeko birgaitze babestuko 67 espedienteri eman zitzaizen behin betiko kalifikazioa, guztira 1.233 etxebizitzari, eta ordaindu beharreko dirulaguntza 7.920.009,10 eurokoa izan zen.

Ez dakigu eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagirietan zer letra lortu den; izan ere, ez da eskatzen espediente bat betetzeko, eta ez da beharrezkoa A edo B letra lortzea dirulaguntzaren onuradun izateko.

Aurrekoa gorabehera, eraikin baten fatxada birgaitze hutsak, inguratzaile termikoa hobetuta, kasu gehienetan ez du ahalbidetzen berez A edo B letra lortzea kalifikazio energetikoan.

– Zein da fatxada eta inguratzaile termikoa birgaitzeko 2024ko urtarrilaren 1ean eskatutako

laguntzen zenbateko osoa eta exekuziorako esku-ragarri dauden laguntzen zenbateko osoa?

2024ko urtarrilaren 1ean, inguratzaile termikoa hobetzeko eskatutako laguntzen zenbatekoa 19.714.533,06 eurokoa zen. 2024, 2025 eta 2026 urteetan ordainduko da, gutxi gorabehera, 320000-32100-7800-261400 aurrekontu-partidaren kontra ("Etxebizitza-jarduketetarako dirulaguntzak eta subsidioak"). Partida horrek 46.017.784 euroko zuzkidura du 2024an (kontzeptu gehiago hartzen ditu).

– Nola bete nahi da Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 38. artikuluan 2. apartatua ezarritakoa?

Ear daitezkeen neurriak aztertzen ari dira, baina baliteke ekimena Energiaren Zuzendaritza Nagusiak izatea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00269. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuari eta REACT funtsei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuari eta REACT funtsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Cascanteko osasun-zentro berri

baterako proiektuaren irizpide-aldaketari buruzko PES 11-24/PES 00206 galderari emandako erantzuna dela-eta (11-24/PES-00269). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Honako baieztapen hauek dokumentatzea:

– "REACTek irailaren 30a baino lehen amaitu beharreko jarduerak egitea eskatzen zuen. Hasi-ran, ezarritako irizpidea honako hau zen: data horretan aurkeztutako eta onartutako obra-ziurtagirien zatian amaitu gabe zeuden obra-espedienteen gastua aurkez zitekeen". Non jasotzen da irizpide hori eta zer dio zehazki? Dokumentuaren kopia.

– "Hala ere, laster baztertu zen aukera hori, hautagarritasun-irizpidea izan baitzen espediente-ek guztiz amaituta egon behar zutela". Non jaso-

tzen da irizpide hori eta zer dio zehazki? Dokumentuaren kopia.

– Noiz gertatu zen irizpide-aldaketa?

– Noren esku dago hautagarritasun-irizpideak ezartzea?

Lanak hasi zirenetik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak etengabe lan egin du Nafarroako 2014-2020 aldirako FEDER Programa Operatiboaren Bitarteko Erakundearekin lankidetzan, finantza daitezkeen proiektuen hautagarritasuna baloratuz eta hautatutako proiektuen etengabeko jarraipena eginez. Erakunde horrekin izandako

jarraipen-bilera ugarietan, eragiketen hautagarritasun-irizpideak zehazten joan ziren, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari jakinarazi zitzaion 2023ko irailaren 30a baino lehen amaitutako jarduketak hautatu behar zirela.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00271. Galdera, genero-indarkeriaren biktimek etxebizitza babestua lortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak genero-indarkeriaren biktimek etxebizitza babestua lortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00271); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Etxebizitza babestu bat lortzeko, genero-indarkeriaren biktimei exijitzen zaie genero-indarkeriaren biktima direla izatea aitorturik (Berdintasunerako Nafarroako Institutuak emandako agiria, alegia), nahiz eta jadanik eduki genero-indarkeriaren biktima izatearen aitortpena, Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoak emana.

Genero-indarkeriaren zenbat biktimak eskatu behar izan dute? Informazioa urtez urte xehakaturta jaso nahi dugu.

Lehenengo galderari dagokionez, baldintza horren justifikazioa jasotzen da Gizarte Politiketako kontseilariaren apirilaren 13ko 234/2015 Foru Aginduaren atarikoan –foru agindu horretan genero indarkeriaren biktimaren egiaztapena arautzen da, etxebizitza babestuen erreserban sartzeko eta etxebizitza arloan babes daitezkeen beste jarduketan ondorioetarako–.

Bigarren galderari dagokionez, hona hemen xehakapena:

Urtea	Eskabideak
2021	281
2022	370
2023	427

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00272. Galdera, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Abaurrea jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00272); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Lehendakaritza Departamentuko inork bilerarik egin al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan Antxon Alonso Egurrola jaunarekin? Hala baldin bada, adierazi bileraren eguna, tokia, gaia eta nor parte hartu zuen.

Edifica kongresuaren kariatara eta antolatzailen ekimenez, 2023ko irailaren 20an bazkari bat egin zen Baluarte Jauregian. Gaia eraikuntza jasangarria zen. Bertan izan ziren Monreal jauna, Edificako sustatzailea; Montes de Frutos jauna eta Ruiz jauna, biak Accionakoak; Alonso Egurro-

la jauna; Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilari Ayerdi Fernández de Barrena jauna; Martín jauna, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministeriokoa; eta del Río jauna eta Medina jauna, biak Passivhaus Partzuergokoak.

2023ko irailaren 29an, Alonso jaunak eskatuta, bilera bat egin zuten sinatzen duenak, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak, eta lehen aipatutako Alonso Egurrola jaunak. Bertan, hausnarketak trukatu ziren Foru Komunitatean osatu berri den gobernuaren testuinguruan.

2023ko azaroaren 6an, topaketa bat egin zen Nafarroako Jauregian, Forestalia enpresak eskatuta. Bertan parte hartu zuten sinatzen duenak, lehenengo lehendakariorde eta Lehendakaritzako kontseilari Taberna jaunak; Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilari Ayerdi Fernández de Barrena jaunak; Forestalia lehendakari Samper jaunak eta enpresa horren beraren ordezkari Ontañón jaunak, Marruedo jaunak, Tejedor jaunak eta Alonso Egurrola jaunak. Bileraren helburua izan zen talde horrek sustatzen duen goi-tentsioko lineak hedatzeko proiekturako estatuko administrazio-baimenak aztertzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00273. Galdera, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru José parlamentari Javier

Esparza Abaurrea jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko inork bilerarik egin al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan Antxon Alonso Egurrola jaunarekin (11-24/PES-00273). Horren harira, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak honako informazio ematen du:

– Departamentuak ez du inolako bilerarik egin Antxon Alonso Egurrola jaunarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00274. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jauna idatziz erantzuteko gal-

dera egin du Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz (11-24/PES-00274). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Digital Enpresarialeko Saileko inork ez du bilerarik egin Antxon Alonso Egurrola jaunarekin, ez legegintzaldi honetan, ez aurrekoan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00275. Galdera, Polizia-etxe berriaren proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Polizia-etxe berriaren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-24/PES-00275 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Proiektuaren epeak hirigintza-izapideen eta onespeneren araberakoak izango dira, bai eta helburu horietara bideratutako partida ekonomikoen aurrekontu-zuzkiduraren araberakoak ere.

Foruzaingoaren polizia-etxe zentral berria eraikitzeke obrak urbanizazio-lanak amaitzen direnean hasi ahalko dira, eta, beraz, beste lizitazio eta hirigintza-izapide batzuk epe barruan egitearen mende egonen dira. Zehazki, plangintza xehatua, urbanizazio-proiektua eta urbanizazio-lanen lizitazioa izapidetu behar dira.

Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren 1. faseko aurreproiektua, oinarritzko proiektua eta eraikinak idazteko lizitazioa, Foruzaingoaren polizia-etxe zentral berria jasotzen duena, aurretiazko azterlanak amaitu eta definitu ondoren egin ahalko da. Gaur egun, ideia-lehiaketa irabazi duen taldea lan horiek egiten ari da eta fase hori udazkenean bukatuta egotea espero da, proiektuaren lizitazioari hasiera emateko.

Eraikinak egiteko obrak amaitu ondoren (exekuzio-epea 18 eta 24 hilabete artekoa izan dezakete), zerbitzuak kokapen berrira lekualdatuz joango dira pixkanaka, barneko espazioak ekipatu eta altzariz hornitu ahala.

Bestalde, Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren 1. fasea garatzeko behar diren lurrak Departamentuaren funtsekin

erostea aurreikusten da, baita proiektua eraikitzea ere.

Aurreikuspen ekonomikoa ideia-lehiaketan parte hartu zutenek emandako datuetan oinarrituta doitu behar da une honetan, alde aurreko azterlanek aurrera egin ahala zehaztu ahal izateko.

Galderan aipatzen den Aranguren Haraneko Udalarekiko protokoloari dagokionez, Barne Zuzendaritza Nagusian eskuragarri dagoen dokumentazioan ez dago jasota Nafarroako Gobernuak eta Aranguren Haraneko Udalak sinatutako protokolorik edo hitzarmenik Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren proiektuaren esparruan Foruzaingoaren polizia-etxe berria egitea aurreikusita dagoen lursailak erosteko.

Horrekin lotuta, bilerak egin dira Herrizaingo Zuzendaritza Nagusiaren eta Arangureneko Udalaren artean, Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa ezartzeko behar diren lursailak erostea adosteko, eta aurreikusita dago erosketa hori egitea antolamendu egituratzaileak, udalez gaindiko plan sektorial baten bidez eginak, proiektuaren hirigintza-bideragarritasuna bermatzeko behar diren onspenak dituenen.

Bestalde, une honetan ezin da modu arrazoi-tuan baloratu Beloson (Iruñea) etxebizitzak eraikitzeke proiektuak eta Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa eta Sanquingo (Aranguren) polizia-etxe berria eraikitzeke proiektuak bereizteak izango duen inplikazio ekonomikoa, etorkizuneko garapenari eragiten dioten faktore eta baldintzatzaile ugariak direla-eta.

Alde batetik, proiektuen inplikazio ekonomikoa haien hirigintza-determinazio egituratzaile eta xehatuen zehaztapenaren mende dago, bai eta higiezinaren merkatuak, eraikuntza-kostuek eta faktore ekonomikoek epe ertainean izanen duten bilakaeraren mende ere.

Bestalde, bi proiektuak paraleloan eta modu koordinatuan izapidetzen badira, pentsatzekoa da Nafarroako Gobernuarentzako inplikazio ekonomikoa berdina edo oso antzekoa izango litzatekeela, hirigintza-garapen orok berezkoak dituen ezaugarri baldintzatzaileak gorabehera.

Barne Zuzendaritza Nagusiak udalez gaindiko plan sektorial berri bat aurkeztu zuen zuzkidura-jarduketari edo zuzkidura publikoko eremuari buruz, eremua zabaltzeko, Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren banaketa

egokia bermatuko duen azalera bat edukitze alde-
ra. Zuzkidura-jarduerak garrantzi estrategikoa eta
lehentasunezkoa du segurtasun publikorako eta
larrialdia kudeatzeko, eta, ikuspegi horretatik, eta
jendaurreko informazioaren eta ukitutako udalei
entzuteko izapidearen barruan, espedientearen
tramitazioan parte hartzen ari diren duten
zuzendaritza nagusiek – Barnekoa, Etxebizitzakoa
eta Lurralde Antolamendukoa – azterketa bat par-
tekatu dute, hasiera batean udalez gaindiko plan
sektorialean aurreikusitako bi jarduketak gara-
tzeko bideragarritasun, segurtasun eta arintasun
handiagoa eskaintzen duten baldintzei buruz.

Prozesuaren hirigintza-izapideek bazuten kon-
plexutasunik, plangintza-tresna baten bidez
hirigintza-eraldaketako bi jarduketa independente,
izaera eta udalez gaindiko eragin hain desberdine-
koak, izapidetu beharretik zetozenak, eta, hala,
izapidetze independente hori ahalbidetuz, proie-
ktuaren arintzean eragiten da. Nafarroako Gober-
nuko zuzendaritza nagusien arteko barne-koordi-

nazio horren ondorioz, bai eta Belosoko jarduke-
tak eragindako Iruñeko Udalarekin izandako en-
tzunaldiaren ondorioz ere, komenigarritzat jo da
udalez gaindiko plan sektoriala izapidetzen jarrai-
tzea Sanquín eremuko zuzkidura publikoko jardue-
ketaren esparruan soilik, eta sustatzaileek atzera
egitea Belosoko bizitegi-jarduketaren eremuan
izapidetzearekin jarraitzeari dagokionez. Eremu
horretan, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko
Udalaren etxebizitza-politikarako interesgarria den
hiri-jarduketa bat planteatu ahalko da, udal hirigin-
tza-plangintzako tresna baten bitartez, eta hori
arintasun, malgutasun eta adostasun handiagoa-
rekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan
zedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kon-
tseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-24/PES-00276. Galdera, Nair Cener-i kontratatutako zerbitzuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
Cristina López Mañero andreak Nair Cener-i kon-
tratatutako zerbitzuei buruz egindako galderaren
erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera
2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamen-
tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parla-
mentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina
López Mañero andreak idatziz erantzuteko galde-
ra egin du Nair Cener-i kontratatutako zerbitzuei
buruz (11-24/PES-00276). Hona Nafarroako
Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta
Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Erantsita doa eskatutako informazioa:

ERAKUNDEA	ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA
Nafarroako Industria Ingeniari Teknikoen eta Graduatuen Elkargoa	Adimen artifizialeko lantegia
Nafarroako Industria Ingeniari Teknikoen eta Graduatuen Elkargoa	Big Data lantegia
Sodena, S.L.	Enpresarako Adimen Artifizialaren Dekalogoia garatzea
Phenomenon Robotics S.L.	Robot mugikor bat adimen artifizialez hornitzea, zeregin jakin bat egiten autoikas dezan.
Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	Adimen artifizialak gizartean eta ekonomian duen eraginaren azterketa
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua Nafarroako Gobernua	Estrategia bat garatzea Administrazioan adimen artifizial sortzaileko konponbideak inplementatzeko
Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarte	Adimen artifizialari buruzko prestakuntza
Nafarroako Kutxa Fundazioa	Adimen artifizialari buruzko prestakuntza

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00277. Galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruz (11-24/PES-00277) Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Zure informazio-eskaerari dagokionez, joan den maiatzaren 24an Legebiltzarrean egindako

agerraldian helarazi nizun informaziora lotzen naitaio. "Departamentu honetatik egin dezakegun gauza bakarra da Bustince jaunari eskerrak eman, noski, Nafarroak adimen artifizialeko zentro hori izan dezan egindako ahaleginagatik eta lan guztiagatik.

Bustince jauna adimen artifizialean ospe handia duen pertsona da, eta, jakina, Nafarroako unibertsitateetako beste ikerketa-talde batzuekin eta NAIR Centerrekin lankidetzan jarraituko du aldez edo moldez.

Eta hemendik, zalantzarik gabe, egin dezake dan gauza bakarra da Bustince jaunari eskerrak ematea egindako lanagatik adimen artifizialeko zentro hori argitara ateratzeko eginiko bultzadagatik eta ahaleginagatik, batzuetan gauzak diruditena baino gehiago kostatzen baitira".

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00278. Galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak Martzillako zubian egin beharreko lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak andreak idatziz erantzuteko

galdera egin du Martzillako zubian egin beharreko lanei buruz (11-24/PES-00278). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentua, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, azpiegitura horri irtenbide onena aurkitzeko zenbait aukera aztertzen ari da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00279. Galdera, “Epaiaik betearaztea, egonkortzeagatiko kalteordainak eta konpentsazioak” izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidako kreditua handitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak “Epaiaik betearaztea, egonkortzeagatiko kalteordainak eta konpentsazioak” izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidako kreditua handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00279). Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1) Egonkortze-prozesu horietan parte hartu duten pertsonetatik zenbat ziren langile mugagabe ez-finkoak?

Egonkortze-prozesuetan parte hartu duten lan-kontratadun mugagabe ez-finkoen kopurua 232 da.

2) Langile mugagabe ez-finkoak ziren horietako zenbatek ez dute lanposturik lortu egonkortze-prozesu horietan?

78 lan-kontratu mugagabedun langile ez-finkok ez dute plazarik lortu amaituriko egonkortze-prozesuetan.

3) Zenbat diru jaso dute batez beste, kalteordain gisa, lanposturik lortu ez eta horretarako eskubidea zuten pertsonen?

Lanpostua egonkortzeagatik kontratua amaitu duten langile mugagabe ez-finkoentzako kalteordainaren batez besteko zenbatekoa 21.295,73 eurokoa da.

4) Zenbat irau du, batez beste, langile mugagabe ez-finkoen administrazioarekiko lan-harremanak?

Aurreko ataleanaren arabera kalte-ordaina jaso duten pertsonen artean, Administrazioarekiko lan-harremanaren batez besteko iraupena 3.921,49 egunekoa izan da, lan-kontratu mugagabedun langile ez-finko gisa.

5) Metatutako C-59 /22, C-110/22 eta C-159/22 auzietan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaia foru-administrazioarekiko lan-harremana bukatu zaien pertsona horien egoerari aplikatzekoa al da?

Epaian bertan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiako Seigarren Salak adierazten du langile mugagabe ez-finko bat iraupen mugatuko kontratua duen langileztatu hartu behar dela, 1999/70/EE Zuzentarauan eranskin gisa jasotako iraupen mugatuko lanari buruzko Esparru Akordioaren ondorioetarako.

6) Zenbateraino?

EBJAren epaiaren 124. atalak honela dio:

"Horri dagokionez, errepikatutako jurisprudentziatik ondorioztatzen da Esparru Akordioaren 5. klausulak ez diela estatu kideei ezartzen iraupen mugatuko lan-kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeko betebeharra, eta, epai honen 103. atalean aipatzen den bezala, ez du zehapen espezifikorik ezartzen, abusuak daudela egiaztatzen den kasuetarako".

Era berean, 129. apartatuak hau dio:

"Gogorarazi behar da Justizia Auzitegiak adierazi duela Esparru Akordioaren 5. klausularen 1. apartatua ez dela, edukiaren ikuspegitik, baldintzarik gabea eta behar bezain zehatza partikular batek auzitegi nazional batean argudiatu ahal izateko. Hain zuzen ere, xedapen horren arabera, estatu kideei dagokie erabakitzea ea, iraupen jakinako lan-kontratuen gehiegizko erabilera prebenitzeko, klausula honetan adierazitako neurrietako batera edo batzuetara jotzen duten, edo, are gehiago, legezko neurri baliokideetara, langileen sektore edo kategoria bakoitzaren beharrianak kontuan hartuta. Gainera, ezin da behar adina zehaztu gutxieneko zer babes aplikatu beharko litzatekeen edonola ere, Esparru Akordioaren 5. klausularen 1. apartatuaren arabera».

Azken atalean, epaiak honako hau ondorioztatzen du:

"Auzitegi nazionalari dagokio, kasua bada, jurisprudentzia nazional finkatua aldatzea, baldin eta hori xedapen nazionalen –baita xedapen konstituzionaletan ere– interpretazioan oinarritzen bada, eta interpretazio hori 1999/70 Zuzentarauaren helburuekin eta, bereziki, 5. klausula horrekin bateraezina bada".

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-24/PES-00281. Galdera, INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruz (11-24/PES-00281). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Batzorde Betearazlerako Barne Erregelamenduaren 1. artikuluan jasotzen denez –erregelamendu hori 11-24/PEI-00508 espediente zenbakidun informazio-eskaerari emandako erantzunean igorri zitzaion López Mañero andreaki–, Batzorde Betearazlea (aurrerantzean, Batzordea) Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. (aurrerantzean, INTIA) sozietatearen baitan sorturiko barne-organo bat da, aipatu sozietateko Administrazio Kontseiluak behin betikoz eskuordeturiko ahalmenak dituen Nafarroako Ubidearekin loturiko jarduera oro kudeatzeko, horretarako autonomia eta ahalmen nahikoarekin”.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00282. Galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde

de Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruz (11/24/PES-00282). Hona Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Jasotako eskabideei erantzuteko epea, nolahi ere, Foru Komunitateak horiei erantzuteko duen aurrekontuaren arabera da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00283. Galdera, Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24/PES -00283 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

1. Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzuko Hezkuntza Plangintzako Atalak, baliabideen banaketa egoikiaren barruan eta Nafarroako biztanleriari erantzun zuzen eta ekitatiboa ematen saiatuz, ikastetxe eta eskola-maila jakin bateko taldeak eta plazak planifikatzen ditu, ikastetxeari atxikitako ikasleei eskola-postuak bermatuz, ikastetxearen espazioen eskuragarritasuna kontuan hartuta eta efizientzia ekonomikoko irizpideei jarraikiz.

2. Batxilergoko lehen mailan ez da ikasgelarik kendu. Taldeen eta, beraz, eskola-postuen plangintza ikasturte jakin horri atxikitako ikasleen arabera egiten da.

3. Alaitz BHIk batxilergo-modalitate hauek eskaintzen ditu:

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Musika eta Arte Eszenikoak

4. Aipatutako batxilergoko lehen bi modalitateetarako, atxikitako ikasleak ikastetxeko ikasleak dira, DBHko 4. mailatik 1. mailara igarotzen direnak.

Ikasturtea	17-18	18-19	19-20	20-21	21-22	22-23	23-24
DBHko 4. mailako atxikitako ikasleak	55	51	41	37	41	42	25

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

5. Hirugarren modalitateerako, ikastetxe hori denez Nafarroan modalitate hori D ereduan eskaintzen duen bakarra, Nafarroako D ereduko ikasle guztiak geratzen dira atxikita.

6. Alaitz BHIko Musika eta Arte Eszenikoen modalitateak 52 eskaera jaso ditu, eta horiei, ikastetxeak aurreikusitako errepikapen bat gehitu behar zaie Musika eta Arte Eszenikoen batxilergoko 1. mailan. Horregatik, batxilergorako ezarritako ratioa 33 izanik, Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzuko Hezkuntza Plangintzako Atalak 2 talde planifikatu ditu.

7. Nafarroako D ereduko ikasle guztiak atxikita dauden Musika eta Arte Eszenikoen modalitatean ez bezala, gainerako modalitateetan Alaitz BHIko DBHko 4. mailako ikasleak soilik daude atxikita.

23-24 ikasturtean, 25 ikaslek egin dute DBHko 4. maila Alaitz BHI:n:

- Horietako bik Musika eta Arte Eszenikoen modalitatean egin dute aurreinskripzioa.

- Horietako bik aurreinskripzioa egin dute batxilergoa eskaintzen duten beste ikastetxe batzuetan.

- Horietatik hiruk Erdi Mailako Lanbide Heziketako irakaskuntzetan egin dute aurreinskripzioa.

- Gainera, ikastetxeak errepikapen bat aurreikusi du batxilergoko 1. mailarako.

8. Laburbilduz, Alaitz BHIko 25-1-2-2-3+1 = 19 ikaslek batxilergoko 1. maila egingo dutela adierazten dute.

Horregatik, batxilergorako ezarritako ratioa 33 izanik, Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzuko Hezkuntza Plangintzako Atalak talde bakarra planifikatu du. Atxikitako ikasle guztiei lekua bermatuko zaie, eta 14 plaza libre utziko dira atxiki gabeko eskaizailleentzat.

9. Informazio gisa, Alaitz BHI:n DBHko 4. mailan matrikulatutako ikasleen historiko bat erantsi da:

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-24/PES-00284. Galdera, biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistikaren ohar metodologikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistikaren ohar metodologikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00284). Hona hemen erantzuna:

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egindako mapa soziolinguistikoak (azken argitalpena 2016ko VI. Mapa Soziolinguistikoari dagokio, eta 020702 eragiketa-kodea du Euskal Estatistika Planean), bere fitxa tekniko eta metodologikoan adierazten den bezala, metodologia misto bat erabiltzen du, informazio-iturri desberdinak konbinatzen dituena:

- EUSTATen biztanleria-erregistroa
- Administrazio-jatorriko estatistika-informazioa

- Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleriaren Errolda (inkesta)

Informazioa hemen dago eskuragarri:

https://www.eustat.eus/elementos/ele0018800/vi-mapa-sociolinguistico/inf0018828_c.pdf

Dakigunez, Espainian ez dago metodologia hori helburu horretarako erabiltzen duen beste estatistika-eragiketarik. Beste autonomia-erkidego batzuek, hala nola Galiziak eta Kataluniak, beren hizkuntza koofizialen ezagutzari eta erabilerari buruzko estatistikak dituzte, eta inkesta propioak edo EINen ardurapekoak erabiltzen dituzte.

Bigarren galderari dagokionez, Nastat-ek Biztanleriaren euskara-ezagutzaren araberako estatistikaren metodologian argitaratu ditu inkesta horretan erabilitako iturriak:

<https://nastat.navarra.es/documents/5122306/26864038/Biztanleriaren+euskara-ezagutzaren+araberako+estatistika.pdf>

Ez dauka informaziorik zerrenda hori zehatza ote den jakiteko, erreferentziako informazioa duten administrazio-erregistroei dagokienez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 25ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00285. Galdera, 8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko 8 asteko guraso-baimena Nafarroan aplikatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak 8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko 8 asteko guraso-baimena Nafarroan aplikatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00285). Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1) Nafarroako Gobernuko edo gainerako administrazio publikoetako funtzionarioak eta langile administratiboak ordaindu gabeko guraso-baimen hori baliatzen ari al dira?

Gaur egun, funtzionarioek eta langile administratiboek ez dute baimen hori, aldez aurretik egin behar baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1158 (EB) Zuzentarauaren transposizioa. Horrekin lotuta, Nafarroak funtzionarioen eskubideak arautzen dituen zuzentarau baten transposizioa –zuzenbidearen arabera eta eskumenen esparru konstituzionala erabat errespetatuz– egiteko, Estatuko oinarriko legeriak eskubide horiei buruz egiten duen zehaztapen zehatzaren mende egon behar du.

Horri dagokionez, gogoeta batzuk egin behar dira aipatutako guraso-baimenari buruz.

Baimen horren erregulazioak bi transposizio-epe ditu: gainerako baimen guztietarako aurreikusitako epe orokorra, 2022ko abuztuaren 2a, eta baimen mota horri lotutako prestazio ekonomikoaren araubidea zehazteko epe berezia, 2024ko abuztuaren 2an amaituko dena.

Egia da ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege-dekretuak 8 aste arteko guraso-baimena aitortzen duela adingabeak 8 urte bete arte, baina baimen hori lotutako prestazio ekonomikoaren baldintzak

Estatuak zehaztu eta transposizioa egiteko zain daude.

Estatuak eta autonomia-erkidegoek 2024ko urtarrilean Madrilen egindako Funtzio Publikoaren arloko koordinazio-bileran iragarri zenez, Estatuak aurreikusita dauka transposizioa horretarako ezarritako epea amaitu baino lehen egitea.

Hori dela eta, Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroak berezkoak dituen eskumenak baliatuz, baimena Nafarroako foru-ordenamenduan txertatu ahal izateko, kontuan hartu beharko ditu Estatuko araudiak eskubide horren behin betiko konfigurazioan finkatzen dituen baldintzak, bai eta ezartzen diren aurreikuspen ekonomikoak ere, eskubide hori nola zehazten den aintzat hartuta, berau aurreikusten duten Estatuko arauen azterketa xehearen bidez.

2) Galdera horren erantzuna ezezkoa baldin bada, Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko du Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua aldatzeko foru-lege proiektu bat, gurasoei onartuko diena seme-alaba edo harreraren urtebetetik gora hartutako adingabea zaintzeko baimena, adingabeak zortzi urte bete arte?

Une honetan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko langileek eta erakunde sindikaleetako ordezkariak osatutako lantaldeetan, Nafarroako Funtzio Publikoaren Estatutuaren Foru-lege proiektu berriaren testua aztertzen, analizatzen eta idazten ari dira. Proiektu horretan, Nafarroako enplegatu publikoentzako lan-baldintza onuragarrienak ezarriko dira –guraso-baimena barne–, Estatuak haren definizioa amaitu eta zuzentarauaren azken transposizioa egin ondoren. Horrela, Konstituzioaren 103.3 artikulua funtzionario publikoaren estatutuaren arloan ezartzen duen legereserba errespetatuko da, eta, beraz, aitortzen diren eskubideen funtsezko edukiaren lege-erregulazioa bermatuko da, enplegatu publikoaren eskubideak babeste aldera (Espainiako Konstituzioaren 53.1 artikulua).

Foru lege proiektua aurkezteko datari dagokionez, ezarritako kronogramaren arabera, 2025ean bidaliko da Legebiltzarrera.

3) Nafarroako administrazio publikoetako lan-kontratudunek ordaindu gabeko guraso-baimen hori har al dezakete, Langileen Estatutuaren 48.

artikuluaren ezarritakoa kontuan hartuta? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik ez zaie ematen langile horiei guraso-baimen hori?

Esan bezala, baimen horri lotutako prestazio ekonomikoaren baldintzak Estatuaren zehaztapenaren zain daudenez, lan-kontratudun langileek Langileen Estatutuaren 48 bis artikuluan aurreikusitako guraso-baimena eskatzen badute, baimen hori baliatu ahal izango lukete, baina ordaindu gabeko baimena izango litzateke, gaur egun gure araudian araututako beste baimen batzuen antzekoa (egungo norberaren gauzetarako ordaindu gabeko lizentzia).

Hala ere, Administrazio Erroan ez dago jasota lan-kontratudun langileek baimen hori baliatzeko eskaerarik egin dutenik eta, beraz, baimen hori ukatu den kasurik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo